



3 HAUTESKUNDEAK

Alejandro Saenz PPKo alkategai gaztea

Alejandro Saenz herritarra da PPKo alkategaia. Lehenengo aldiz aurkeztu da hauteskundera eta herri bizilaguen baten alde egin behar dela azpimarratu du. Lasarte-Oria 'loleku' bilakatu dela uste du eta herritarrek herrian geratzeko ekimen gehiago egin behar direla. Kirol instalazio berriak beharrezko ikusten ditu alderdi popularreko hautagaiak.



5 ARTEA

Herriko artisten lanak ikusgai Mercero aretoan

Atzo iluntzean zabaldu zuten Mercero aretoan Antxota herriko artisten elkarate udalarekin batera antolatutako erakusketak. Irekiera ekitaldian musikaz gozatzeko aukera ere izan zen. Bertan mota askotako lanak bildu dituzte, eskulturak, marrazkiak eta argazkiak besteak beste. Udal ordezkariek eta artistak pozik azaldu ziren elkarlaneko ekintza honekin. Erakusketak zabalik izango da maiatzaren 17ra arte.

Aterpearen Udaberri festa

Datorren ostiralean egun osoan zehar eskaintza bereziak izango dira

Aterpeak herriko merkataritza eta ostalarien elkarrekin bigarren urtez antolatuta du Udaberri festa. Honakoak datorren ostiralean izango dira, maiatzak 15, eta egun osoan zehar herritarrek 27 establezimenduk euren produktuak kalera atera eta eskaintza bereziak izango dituzte herritarrentzat eskuragarri. Tabernetan pintxo bereziak edota festa tematikoak ospatuko dira.

Udaberriko festaren bigarren edizioa antolatuta du Aterpea merkataritza eta ostalarien elkarrekin maiatzaren 15ean. Lazko arakasta ikusita, herriko komertzioek beriz kalera aterako dituzte euren produktuak bezeroak erakartzeko helburuarekin. "Herrian dagoen eskaintza zabalda ezagutzera eman nahi dugu" esan zuen Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakaria asteazkenean egindako agerraldian.

Dendetan eskaintza bereziak aurkitzeaz gain, haurrentzako puzgarriak jarriko dituzte Juan XXIII eta Zumaburu elizako plazaetan 18:00etatik 21:00etara. "Asmoa jai giroa beste auzoetara eramatea izan da Owendok ez dituzan ekitaldi guztiak jasotzeko".

Kalejaren ibiliko dira herrian barrena ere Tiririkitarrakako trikilitari eta pandero joleak 18:30etatik



Aterpeko kideak Dorre parkean asteazkenean egindako agerraldian.

aurrera "herriko kaleak euren doinuekin alaituz".

Jendea egun horretan kalera ateratzea nahi dute Aterpeko kideek. Herriko eskolen laguntzarekin, Landaberri eta Sasoea-Zumaburu haurrek udaberriaren inguruko marrazkiak egingo dituzte eta hauek Aterpeko denda eta tabernetan erakusgai jarriko dituztela azaldu zuten.

Ormazabalek adierazi zuenez, maiatzaren 15ean beren marrazkia non dagoen aurkitzen duten haurrek oparixko bat jasoko dute. Beraz, gurasoak animatzen dituzte haurrak denden ibilbide honetan laguntzera.

"Herritarrek gure kaleetan mugitzea nahi dugu, auzo guztietatik pasatzea egun horretan eta ezagutzea bakoitzaren dagoen eskaintza".

Pablo Barrio alkatea izan zen agerraldian eta halako ekimenak Udalak bultzatu behar dituela azpimarratu zuen. "Tratu on bat kanpainaren barruan asko dira ekimenak eta hau da gure herriko komertzio eta tabernak dinamizatzeko beste modu bat". Herrian dagoen eskaintza indartu eta sustatu behar dela esan zuen alkateak.

Dioni Avila teknikariak bere aldetik, halako ekintza erazak pauso garrantzitsuak direla esan zuen "herri biziagor balde".

Ormazabalek azpimarratu zuten, denda bakoitzak erabaki duela zein eskaintza egin egun horretan, horrela izanda, batzuek outleta egingo dute, beste batzuek deskontuak edota produktu jakin batzuen eskaintza bereziak izango dituzte.

27 salkoti

Ekimenean parte hartuko duten Aterpeko bazkideak honakoak izango dira: den den artean; Noaoa bidaiak, Alda complementos, Mauxaren denda, Ormazabal lore-denda, Aritza merterzia, Donna, Olmi merterzia, Abreu, Alba moda, Bideo Lagunak, Orbelak ekodenda, Asmae, Sukoa, Iturbe zapatadenda, Maiana perfumaria, Akene zapatadenda, Santana informatika, Okela harategia, Zumaburu liburudenda, Arregi elektrizitatea, Urruzola merterzia eta Josema ferreteria.

Taberna berri bost izango dira, Arkupe, Yolanda, Buenetxea kafetegia, Bus kafetegia eta Izurde.

Herritarrek datorren ostiraleko ekimenean parte hartzea deitu dituzte.

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

IEFPS USURBIL GLHBI

Ate irekiak maiatzaren 9an eta 16an (larunbatak)

Gol-mallako Erdi-mallako HEZIKETA ZIKLOAK

Kimika

Elektrizitatea

Administrazioa

Energia eta ura

Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@ihusurbil.com

Neure kabuz



Mailu Arruti
Giltza

Giltza hitzari lotuko nartzaio. Bere adiera batzuei.

Arazoaren giltza dauka diogunean norbaitek, soluzioa daukala esan nahi dugu. Kristauek San Pedrori egotzi zioten zerurako giltzaria giltzatz beteta. Espainolez "ama de llaves", etxe hortako errejenta, boterea irudikatzen du. Giltza motetara joez gero ezagutzen ditugu tuboko giltzak eta batez ere giltza ingelesa.

Adibidez Baionako festako ikurra da. Baionako giltza (simulazioa) Udaletxeak balkoitik jaurtitzen zaio herriari egun horietan herriak dauka giltza, festa egin dezan.

Maitasun ikur bezala ere gero eta gehiago egiten dena da zubi batean berirako maitasuna zin egin, kandadua zubiarri lotu eta giltza uretara bota.

Baita ar-emeen arteko sexuari buruz aritzeo ere irudiarren har erabili izan da. Sarraila emea, giltza arra.

Urtetan denborari ere lotuta egon da giltza. Erloju zaharri kuerda emateko giltza gurratu etxean.

"Etxe berria erosi dugu". "Datorren astean emango digute giltza".

Zerbait garrantzitsua gordetzeko giltzapean gordetzen dugu.

"Giltzapean sartu naute, poliki poliki, negar egingo luke, nere amak baleki".

Baina eskailerak ere igotzeko eta jaisteko diren bezala, giltzak sarraialki etxi eta ireki egiten dituzte.

Ongi etorri Juankari!

Zorion agurrak



Igor

Zorionak pottoko zarpigarren urtebetetzean! Ondo pasa eguna zure gurasoen eta familiaren partetik!



Elene

Zorionak printzesal Bost urte zoragarri eta bost muku goxo zuretzat! Maite zailugu, Garazi, Aizpea, aitaxo eta amaxo.



Maitane

Zorionak printzes!!! Dagoeneko zazpi kandle-dizuru tartan. Milioi bat muku eta besarkada alta, ama eta lkerren partez.



Aiora

Zorionak PRINTZESA. 8 txokolatetxo muku pottolo zuretzat, famili guztiaren partetik.



Aimar

Zorionak txapeladuna!!! Oso ondo pasa zure 8. urtebetetzean. Muku asko familia guztiaren partetik.



Junkal

Zorionak!!!! Oso ondo ospatu izana espero dugu. Besarkada bat Ttakuneko lankideen partez!



Ekaitz

Zorionak etxeko errege bihurriari. Lau muku pottolo. Etxeko guztien partetik.



Nerea

Zorionak!!! Eguna ondo ospatu izana espero dugu! Besarkada bat Ttakuneko lankideen partez!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Gela alokatzan da Lasarte-Orian. 674 69 44 97.
- Salou. Apartamentua alokatzan da 4-6 pertsonentzat. Berrieta eta aire egokituarekin. Erdialdean dago eta hondartzaz gertu du. Bi igerileku erabilgarri. Alokairua 350 eurotik gora astea. 661 14 81 68.

Landeskaintza

- Goiegi lasterxan asten ordu batzuk lan egingo lukeen, pertsona bila dabil. Zerbitzari laguntzailea: Euskalduna eta bezeroari arretaz zerbitzua emateko gogoia duena. Esperientzia ez da derrigorrezkoa. Garbiketako zenbait lan ere egin beharko ditu.

Landeskaria

- Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak eta garbiketak egiteko pertsona eskaintzen da. 648 19 84 56.
- Etxerako langile bat eskaintzen da. Interno edo externo lan egiteko. 676 18 84 11.
- Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke goizetan, igande edo jai egune-

- tan. 943 40 40 15 edo 606 66 10 48 Doris.
 - Klase partikularrak ematen dira batxilergoko letretako irakaskari guztiak, latina barne. 600 76 60 68.
 - Interno edo externa bezala lana bilatzen dut adinekoen zainetan. Esperientzia eta paperak egunean ditut. 645 78 72 72.
 - Neska eskaintzen da externa edo orduka lan egiteko pertsona helduen zein ume edo gaixoen zainetan. Paperak, erreferentziak eta berehala daktul prest 627 10 90 78 Maria.
 - Emakumea eskaintzen da interno edo externa moduan lan egiteko. Esperientziaduna helduen eta umeen zainetan. 637 19 07 26.
 - Neska arduratsua externa edo interna moduan lan egiteko prest ume zein helduen zainetan. 632 14 28 11.
 - Arratsaldeko asteburuetan haur zein helduen zainetan edota garbiketako lanetan lan bila. 627 26 97 19 Iris.
- Bestelakoak**
- Logela alokatu eta etxea konpartitu nahi dut Lasarte-Orian. 651 92 53 49, Karlos.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Maialen Zarauz Ruiz, apirilaren 30ean.
- Joel Echeverria Cotrina, apirilaren 28an.
- Abraham Echeverria Cotrina, apirilaren 28an.
- Astor Montero De la Fuente, apirilaren 25ean.
- Izan Altamira Martínez, apirilaren 22an.



Heriotzak

- Eustakia Ormaetxea Oiarra, maiatzaren 4an, 84 urte zituela.
- Miren Bikondoa San Sebastian, maiatzaren 3an, 96 urte zituela.
- Jose Francisco Ubegun Alcaín, maiatzaren 3an, 67 urte zituela.
- Lucia Barcenilla Cantero, maiatzaren 1ean, 93 urte zituela.
- Manuel Pazo Leon, apirilaren 29an, 77 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 8 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Larunbata, 9 Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Igandea, 10 Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Astelehena, 11 Gandarias-Urribi, I. de Loyola 9 943 019521
- Astearta, 12 Orue, Jatzkibel plaza 2 943 362652
- Asteazkena, 13 De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Osteguna, 14 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elorregi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

- Oyasan Zentroa 943 007960
- DSIA 943 464622
- Gurutzte Gorria 943 363953
- Udalzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDAL A

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEMUTETA, HEHEZTETA, POLITIKA ETX KULTURA TALdea
Hizkuntza Erakundeak (Eusko Jaurlaritzak)



Gfako Kultura eta Euskara Departamentuak

Argitaratzailea:

Txakun Kultur Elkarteak
Gelboki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:
Majider Azumendi, Nerea
Ezagrago, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publikatzea eta administrazioa:

Administrazioa

publizitatea@ttakun.com

administrazioa@ttakun.com

Laguntzailea:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Malu Armit,
Aisler Oñativia, Milder Segura,
Gorka Alvarez, Jesus Arrieta, Peko
Aizpitarte, Edu Galardi

Informazioa:
Xabier Amadoz

Alejandro Sáenz PPKo alkategaia

"Herritarren egunerokoa hobetzea da erronka"

PPKo alkategai gazteak herriari 'bultzada garrantzitsua' emateko garaia dela uste du

24 urteko lasarteoriatarra da Alderdi Popularreko alkategaia. Bere ikasketak amaituta, enpresa bat sortzekotan da lagun batzuekin. Urte bete baino gehiagoko darama PPKo gazterian parte hartzen eta berak aitortu moduan, Juan Carlos Cano eta Borja Semper alderdikideek animatuta eman du pausoa bere hautagaizta aurkezteko. Herri biziago bat nahi duela dio eta konformismoan eroriko ez den Udaletxe bat.

TXINTXARRI (ERREDAKZIOAN ITZULIA)

Zeintzuk dira zure ustez Lasarte-Oriak momentu honetan dituen beharrak?

Lasarte-Oriak bizitza behar du, dinamismoa. Ezin dugu izan lo-herri bat, non jendea goizean lanera irten eta gauean itzultzen den.

Asteburuetan jende asko Donostiara edota beste herri batzuetara joaten da gurean ezer gutxi dagoelako egiteko. Lanpostuak eta aisialdirako aukerak sortu behar ditugu.

Zein esparrutan eragin behar da gehien zuen ustez?

Lasarte-Oriari jende asko dago kirola egiten duena, amateurrak, eskolan, kirolari federatuak... Kiroldegian egeora lotsagarria da, jakina da gure kiroldegia ez joateagatik Usurbilekora joaten diren herritarrak daudela. Lasarteoriatarrok ez dugu eskualdeko kiroldegi okerrenetako bat merezi.

Bestalde, herrian atletismo talde bat dugu oso maila altuan lehiatzen ari dena, sariak jasotzen ari dira herrialde, erkidego edota maila nazionalen eta garaia bada hauek gehiago eta hobeto zaintzeko. Atletismo pista estali behar da besteak beste, txapelketak ere gure herria ekarri ahal izateko.

Ekonomia, merkataritza sustatu eta langabezia tasari erreparatuta zein neurri proposatzen dituzue?

Ekintzailetza erraztu behar dugu herrian beharrezkoa den azpiegitura eskainiz euren proiektu edo enpresak gurean martxan jartzeko. Horretarako besteak beste, sustatu egin behar da herriak eta akordioa udala, lokal hutsen jabeak eta ekintzaileen artean.

Hirigintzari dagokionean, etxebizitza eta aparkaleku eskaintza herrian nolakoa da egun eta nolakoa beharko luke?

Lasarte-Oriari aparkatzea "mision imposible" da, bai auto zein motorrentzat ere. Honen eraginez, marra horietan, pasabideen gainean, motorrentzako aparkalekuan... autoak gaizki aparkatuta daude gure kaleetan. Honek guztiak gainera herri zikin eta desordenatu baten itxura ematen du, oinezko eta gidariaren umorea erregatzearekin batera.

Etxebizitzaren gaia txiste txar bat da. Ezin dugu onartu babes ofizialeko 96 etxe eraikitzen hasi eta ondoren, baliogabe utzea lehiaketa publikoa eraikuntza enpresarekin adostasunerara heltzeko gaitasunik ez delako egon, Zabaleta Berrin gertatu den bezala.

Hasi behar da hutsak edo konpontzeko dauden 224 garaiekin alokairuan jartzen. Herrian aparkaleku eta bererakitzeko azterketa bat egin behar da gainazaleko aparkaleku kopurua handitzeko.

Horretaz gain, aipatutako 96 etxeak eraikitzen bukatu behar dira Zabaleta Berrin.


Aparkatzen hainbeste denbora galdu behar ez izatea merezi dugu eta baita herri garbi eta ordenatu bat ere.

Herrian dauden zerbitzu publikoek dagokienean, zer hobetu/indartu behar du?

Zerbitzu publiko guztiak hobetu eta indartu behar dira, ahal delako gainera.

Konformismoak ez du lekuri izan behar Udaletxearren eguneroko lanean.

Kultur etxeko eta kiroldegiko zerbitzuak ez dituzte herritarren beharrak asetzen eta hauek erretiratuaren egoitzarekin batera, bultzada



"Udalarekin inplikaturik dauden herritarrak eta herritarrekin inplikaturik dagoen udala behar ditugu"

garrantzitsua behar dute nire ustez.

Kultura alorrean, zeintzuk lirateke lanildoak? Euskarak zein leku dauka? Eta kirolak?

Itzulerako kultura bat sustatu behar dugu. Pertsona bezala zein diruz aberastuko gaituen kultura bat behar du herriak.

Datorren urtean Horribia Europako kultura hiriburua izango da. Lan egin eta pentsatu beharko genuke, nola baliatu dezakegun hau gure herriarentzat aukera bat izan dadin ere. Jendea Lasarte-Oriara nola erakarri landu beharko genuke. Kulturak eta arteak arima aberastu dute baina zoritxarez, diruz bakarrik eskura daitezke.

Euskarak merezi duen lekua izan behar du beti ere batzeko elementu gisa uler-tuta eta ez banaketa edo hausturarako. Lasarteoriatarren behar errealen arabera inbertitu beharko da hizkuntza, kirolean eta gainontzeko kultura atletan bezala.

Zer iruditzen zaizu herriaren parte-hartzea erabakietan eta ekimenetan?

Parte-hartze ekimen guztiak ez dira guztiz egia edota emankorrak izan hain opako den udalarekin.

Guk Udalaren gardentasunean lan eginez, herritarren parte hartzea eta ekintzak sustatuko ditugu. Udalarekin inplikaturik dauden herritarrak eta herritarrekin inplikaturik dagoen udala behar dugu.

San Pedro jaiek deszentralizatuak izan behar dute edo Okendok izan behar du gune bakarra?

San Pedroak Lasarte-Oriari jaiki dira, auzo guztien jaiki. Okendo plaza da herriko erdigunea eta horrela izanda, ekintza kopuru handi bat jaso behar du baina gainontzeko auzoetan ere ekintza ezberdinak egin daitezke.

Auzuez lekuak eta ekintza mota guztiak aztertu beharko lirateke, ekintzak leku egokietan egin daitezkeen beti ere bizi-lagunak molestatu gabe.

Gure jaiek ez dute inor kanpoan utzi behar.

Zeintzuk dira finkaturik dauden lehentasunak eta erronkak? Lehenetsunak eta erronka bakarra da. Lasarteoriatarren egunerokoa hobetzea, jaiotze berriak hasi eta gure zaharretara, herria edozein sigla edo interesen gainetik kokatu behar dugu.

Alkate izatekotan zer da egingo duzun lehenengo gauza?

Lehenengo gauza izango da nire esku dagoen guztia egitea herritarren parte hartzea lortzeko, kolektibo guztiak barne hartuz, bultzada handi eta garrantzitsua bat emateko herriari, izan ere, Lasarte-Oria denok gara.

Nolako herria irudikatzen duzu lau urte barru zure zerrendak gobernaturiko balu?

Herri ategien, garden eta alai bat irudikatzen dut.

Lasarteoriatar guztiak ordezkatzen dituen herri bat, herri antzia. Herri bat non lasarteoriatarrek proiektu pertsonalnak zein profesionalak garatu ahal izango dituzten. Konformitatez ez den herri bat eta etengabe, behintzat eskualdean, erreferente bilakatzeko lan egingo duena.

Kondena eteteko eskaera atzera botata

Ibon Fernandez Iradi herriko presoak Lannemezaneke espetxean jarraitu beharko du

Parisko Dei Auzitegiak atzera bota zuen atzo Ibon Fernandez Iradiren kondena eteteko eskaera. Herritarrak pairatzen duen esklerosi anizkoitza eta espetxea bateragarriak direla deritzo. Bost egun daude orain Kasazio Gortean helegitea jartzeko. Lasarte-Orian zein Baionan ebazpenaren aurka eta Ibon aske uztearen aldeko mobilizazioak egin ziren atzo.

TXINTXARRI

Ibon Fernandez Iradi herritarrak Lannemezanekean jarraitu beharko du preso. Atzo Parisko Dei Auzitegiak bere azken ebazpena eman zuen eta Lasarte-Oriako herritarren zigorra etetearren aurka agertu da orain Frantziako auzitegia.

Dei Auzitegiaren arabera, ezinezkoa da bere gaixotasunaren eboluzioa aurretik jakitea eta beraz, bere eritasuna ez da traba bat eriptzean jarraitzeko.

Kasazio Gortean helegitea jartzeko aukera dauzate orain eta bost egun dituzte abokatuak horretarako.

Erabaki baten zain

2011. urtean hasi zen Fernandez Iradi esklerosi anizkoitza lehen sintomak pairatzen eta 2013. urteko urtarrilean

eman zioten azken diagnosis.

Gauzak honela, 2014ko martxoan zigorraren suspentsioaren eskaera egin zuten Ibonen abokatuak.

Ekainaren 20an Parisko epaitegiak zigorraren suspentsioa onartu zuen. Ibonen berehalako askatasuna behartzeko gaixotasun osasun egoeraren larritasuna onartzen zen. Izan ere, bi osasun ezterketek gaixotasun hau espetxearekin bateragarria ez zela zioten.

Aldi berean, bere erabakiari egingarritasun gutzia kentzen duen baldintza bat ezartzen zuen epaileak: Frantziar estatuan egoteko behetua indarrean mantentzen du.

Baina fiskalak eta defentsak helegitea jarri zuten eta urriaren 30ean ebazpena eman behar zuen epaileak.

Urriari, berriz, beste mediku azterketa bat eskatu



zuen epaileak presoaren osasun egoeraz sakontzeko epaia atzeratuz.

Martxoaren 26an jaso zen mediku txosten bat eta honetan, berriz, espetxea eta gaixotasuna bateragarriak direla zioen.

Mobilizazioak

Ibon Fernandez Iradiren senide eta lagunek manifestazio deialdia egin zuten ostiralean eta atzo herritar askok bat egin zuten mobilizazioarekin. Okendotik atera eta herriko kaleetatik berrera 'Giza eskubideak errespetatu izan behar dutelako, Ibon etxera'

aldarria zabaldu zuten. Fernandez Iradiren askatasuna eta larri gaixo dauden presoak etxera ekartzeko eskaera egin zuten, manifestazioa euren inudiekin ireki.

Egun "luzea eta gogorra" izan zela adierazi zuten Presoen Lagunak taldeko kideek: "Prozesu luze baten beste puntu bat da. Aurretik entzun ezinezko den zehaztasun ahotan bai epailearen beraren ahotan gaixotasun ez dela bateragarria kartzelarekin... Zergatik hirugarren? Hirugarren txostena eta epaiketa da. Honetan gainera zalantzarako balorazioa eginen

du, aurrekoek garbi esan dituzten Ibonen gaixotasuna larria eta sendaezina dela... Latza da. Orain Kasazio Auzitegiara iristeko bost egun daude. Auzitegi hori beste pauso bat da Europara iritsi ahal izateko. Baina zain egun behar hau, tentsio hau, gaixotasuna denborarekin larritu besterik egiten ez denean... Kinka horretan gaude. Baina ez dugu etsiko eta hilaren 16an 'Libre eta bizirik, larriki gaixo dauden presoak kalera' lelopean gaixotasun larriki dituzten presoaren herrietan mobilizazioak egingo dituzte, giza eskubideak oinarri".

XII. Baloietan Hezi jardunaldiak

Hamabigarren edizioa bete ondute Danok Kide Guraso Elkarteak antolatutako jardunaldiak. Aurten 'Baloietan eta Gizarteak: Oraina eta Geroa' ardatz hartuta, hiru hitzaldi antolatu zituzten Manuel Lekuona kultur etxean.

Balioen krisia "nabarmena" dela usteta, hiru hitzaldietan egungo egoeraren azterketa eta irtenbide posibleak bilatzen saiatu ziren. "Gure arteko elkarbizitzak eraso handiak jasaten dituzte: iruzurrak, zapalketak, giza eskubideen aurkako erasoak... Gerrak, bazterketa eta ezinegoko egoera handia dago gizaratean", adierazi zuten.

Hori jakinda, pertsona eta gizarte bezala herritarrok daukagun "eronka" honakoa dela diote: "Denon arteko ekinaren etorkizuna erakiri nahi dugu, ixtaropentsu, gure gazteei eta Europa osoari begira".

Hiru hitzaldi

Astelehenean 'Gazteen Baloietan Europaren etorkizuna' hitzaldia eskaini zuten Javier Elzo Deustoko Uniber-



Javier Elzoren 'Gazteen Baloietan Europaren etorkizuna' hitzaldia ikusmina piztu zuten.

tsitateko soziologia irakasle, dekanoa eta idazleak.

la goraino bezalako kultur etxeko hitzaldi arretan bildu ziren dozenaka herritarrek adi entzun zituzten ordubetan Elzoren hitzak eta amaieran galderak egiteko aukera izan zuten.

Asteartean 'Ekonomia politiken inguruko balioen krisia' izeneko hitzaldia eman zuten Patxi Meabe Zientzia Politikoetako irakasleak eta ETIKARTE fundazioako artikulugileak.

Asteazkenean berriz, 'Baloietan eta gizarateko Europako ingurunean' hitzaldia izan zen Xabier Ibarzabal medikua, Gizarte Zientzietako irakaslea eta INGEMA institutuko kidearen eskutik.

Honenbestez, amaitutzat eman ditu Danok Kidek aurtengo XII. Baloietan Hezi jardunaldiak: "Politika, ekonomia eta kultura eragileek badute erantzukizunik gizaratearen garapenean, baina guk ere bai, herritarren duintasuna eta errespetu sustatzeko".

Musika eskolako ikasleak Musikaldia eta EMUSIK 2016 ekimenetan

Lasarte-Oriako Musika eskolako ikasleek bi hitzordu garrantzitsu dituzte larunbat honetan.

Batetik goizean, Musika eskolako tritilariek Errenterian ospatuko den XII. MUSIKALDIAN, Euskal Herriko Musika eskolen topaketa parte hartuko dute. Honetan 46 musika-eskolatik iritsitako 3.000 ikasle inguru egongo dira.

Herriko musika eskolako tritilariek Xabier Olasoaga plazan 10:00etan izango den hasiera ekitaldian joko dute.

12:00etan, aldiz, Galtzaraborda auzoan, Alegria-Dulantzi, Lourdes Iriondo, Doinua batukada eta Ondarrokoko tritilariek batera, kalejira alean auzoa musikaz beteiko dute.

Xabier Olasoaga plazan egingo den bukaera ekitaldian ere izango dira Lasarte-Oriako tritilariei eta pandero joleak. Emanaldi hau 14:00etan izango da.

Emusik entsegua

Bestalde, aurratsaldian,

17:00etatik aurrera Anoetako estadiotan izango dira EMUSIK 2016 ekitaldiko entsegu nagusian.

Bost mila musikaririk gora eta hainbat dantzari talde ariko dira bertan ordu betez entsaiatzen.

Txanton Piperrri (Buena Ventura Zapiarain), Europako Ereserria, Raimundo Sariiegiren San Sebastian Martxa eta Zubikatu Bizitza, herritarrei zabalduko lehiaketa bitartez aukeraturako abestia, Garazi Zabalza gazte beasaindarrak sortutako dira Anoetara hurbiltzen diren herritarrek entzun ahaliko dituzten lanak.

Ekimen hau Europaren egunarekin bat eginez ospatuko da eta 2016ko maiatzaren Donostian egingo den XII. Europako Musika Eskolen Jaialdiaren inaugurazio-ekitaldiaren aurrerakia da. Honetan nazioarteko 20.000 musikaririk parte hartzea espero da.

Musika eskolako arduradunek aipatu dituzten, ikasleek, ekitaldi hauetan parte hartzeko, lan eta esfortzu handia egingo dute.

Arte erakusketa zabalik Mercero aretoan

Denera 50 obra daude ikusgai atzotik aurrera, herritarren artisten eskutik

Ikusmina piztu du Udalak, Antxota herriko artisten elkarteak eta norbanako sortzaile batzuek elkarlanean antolatutako erakusketa. Ekitaldian, Pablo Barrio alkateak eta herriko artistek ongietorria egin zieten herritarrei eta Antxota elkarteak kideek eskua luzatu zieten artistei.

TXINTXARRI

Arte-potea' eta Maria Llanosen arparen doinuek girotua ireki zuten atzo atek Antonio Mercero erakusketa aretoak, artea ardatz. Erakusketa berezi batekin eman zaio hasiera gure herri honi, Lasarte-Oriako hainbat artisten erakusketaren bitartez.

Lasarte-Oriako Udalak eta Artisten mahaia antolatutako ekimen honekin, herriko artisten ahalmena erakutsi eta kul-



Jende asko bildu zen atzo iluntzean Mercero aretoan, herritarren dozenaka obrez gozatzeko.

tura artistikoa sustatu nahi dituzte. Horregatik artista amateur eta profesionalagoen lanak batu dituzte..

Era honetara, Mercero guneko lau eremutan banatuta herriko bederatzita artisten 50 bat lan ikusi ahal dira.

Antxota elkarteak Jose Luis Gonzalez (eskultura), Nerea

Pascual (pintura), Oscar Barrera (argazkilaritza) eta Maria Llanos (musika) artistez gain, Ione Zabala (pintura), Gotzon Huegun (eskultura), Julian Toquero (pintura) eta Miguel Angel Oribe (eskultura) herritarrek jarriko dituzte haien lanak lasarteoriarren gozagarri.

Ordutegia

Erakusketa maiatzaren 17ra arte izango da ikusgai eta egun eta ordu zehatzetan egongo da irekita: gaur eta maiatzaren 15ean 19:00etatik 21:00etara; hilaren 9, 10, 16 eta 17an goiz eta arratsalde: 12:00-14:00 eta 19:00-21:00 bitartean.

Erakusketa aretoko sarrera doakoa izango da eta Oken- do atzeko Mercero plazatik sartu behar da gurea.

Antxotako kideek herritar- rrek gonbidatu nahi dituzte Lasarte-Oriako sortzaileen lanez gozatzera. "Denon artean erakusketa handi eta polit bat egiten saiatu gara. Gure aldetik genuen guztia jarri dugu eta nahasketa eder hau zuen gustuko izatea nahi dugu, ezohiko zerbait da, gure ustez, emaitza bikaina eman duena. Urte asko daramatzagu honetan, eta pasioa da gure sekretua", adierazi dute Antxota artisten elkarteak kideek.

Erakusketaren helburua "herri bizia" sortzea da, arteak eskaintzen dituen "balio anitzak" aprobetxatuta: "Era berean, herriko arteariultzatza bat eman nahi diogu, kolore prisma berri bat, bai ikusipuntu intimitik barrurako zein ikusipuntu urbanotik kanporako", adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek.

Oroimenaren ibilbidea ikasleekin

Islada Ezkutatuak herrian memoria historikoa berreskuratzeko lanean dagoen taldeak DBHko ikasleekin batera egin zuten apirilaren 30ean herrian zehar ibilbidea.

Gaur arte, 1936ko altxamendu frankistaren garaiko pertsonen testigantza ugari bildu dituzte Lasarte-Orian, baina gure fisikoak berreskuratzeko lanetan ere ari dira, horietako batzuk Buruntza edota Txaladaxur mendiaren daude, sastraka artean, baina beste asko eta asko herriko kaleetan bertan.

Erdigunean bilzten dira memoria historikoaren mapa osatzen duten gune garrantzi-

tsu ugari. Villa Mirentxu, Okendo plaza, San Pedro eliza ingurua, Brigitarren Komentua eta Hipodromoko zubia bisitatu dituzte ikasleek eta gerraostean nolokoak izan ziren azaldu zieten Islada Ezkutatuak-eko kideek.

Ibilbidean, fusilamenduak izan zirela gogoratu, guda lekuak zein izan ziren adierazi eta bando errepublikanoko kuartelak eta militarren aginte lekuak kokatu zituzten. Beste beste, barrikadak, sindikatu eta alderdi politikoaren egoitzak, bonbardatutako etxeak eta Hipodromoko hegazkin zelaia ere aipatu zituzten.



Landaberri BHko ikasle talde batek egin zuten Isladako kideekin ibilbidea.

"Ezer gutxi idatzi da gerrak Lasarte-Orian eragin zuten sufimenduaz. Badirudi gerra ez zela hemendik igaro, eta hori ez da egia. Gure ondorengo belaunaldiak ezagutarazi nahi diegu, esaterako, kontzentrazio

zelaia izan zela Zapatarin, gerra osteko fusilatze guneak Irubiden, frontea Buruntzen eta Teresategin edota atxilotetako-guneak udaletxe zaharreen...", adierazi zuten Islada Ezkutatu elkarteak kideek.

Bere garaian etxe guztietara bidali zen 'Oroimen historikoaren mapa'. Orain arte isilpean egon direnak argitara atera eta belaunaldi guzteez gurean gertatutakoak jabetzea izan zuten itereara honen helburua.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan
 Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak
 Txistorra Basurde burua
 Baserri patea

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 - 20160 Lasarte-Oria
 Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

LIKIDAZIOA TELEBISTETAN

ERAKUSKETA ALDAKETA

Bideo Lagunak

Etiketa berrina elektrikoak

12 HILABETETAN INTERESK GABE

Zatuz eta konparatu!

LABURRAK-

Raul Gomez Margallo Lasarteko atleta bigarren Andoain eta Goizuetako krosetan

Raul Gomez Margallo han eta hemengo podiumak zapaldu eta zapaldu ari da. Kros Herrikoien denboraldi ona osatzen ari da, erregularra, eta horrela jarraituz gero lehenago edo beranduago iritsiko zaio podiumeko koska gorenera igotzeko ordua.

Etetik gertu, Andoaingo Santa Kutz jaietako krosetan zilarra kolokatu zuen asteburuan. Zirkuitu luza bati eman beharreko hiru itzulietan bigarren egin zuen herriarrak Ander Sagarazuren atzetik. 32:28ko denbora egin zuen Lasarteko atletak. Emakumezkoetan Eva Olazagoitia izan zen onena, 191. postuan. Denera 10 lasarteoiratarrak hartu zuten parte 200 lasterkariko krosetan.

Goizuetako krosetan bi herritar izan genituen iteera lerroan, eta biekin lortu zuten lehen bosten artean sailkatzea. Bigarren Raul Gomez Margallo izan zen berriro ere. Oraingo honetan Unai Senforanen atzetik. 10 kilometroko proba 33:23ko denboran bota zuen herriarrak. Bosgarren Borja Romero izan zen eta honek 36:57ko denbora egin zuen.

Tolosa Udaberriko krosetan berri, Iraitz Pikabea herritarra 19. izan zen 5 kilometroko krosetan, 17:05eko denbora osatuta. Emakumezkoetan Arantxa Zapata izan zen azkurrena 24:54rekin.

Bestalde, Gipuzkoako atletismo txapelketen lehen jardunaldia jokatu zen larunbatean Anoetako Estadio Txikian. LOKEko Idia Olasagasti, Eneritz Busto, Maria Eugi eta Ane Galardi neskek bigarren egin zuten 4x100 proban, lehenengo aldiz 50 segunduen langa jaituta. Gaizka Ormazabal Super Amara BAT taldeko atletak urtea lortu zuten 4x100eko errelebu proban, lungro taldearen errekorra ezarriz. Lehenengo izan zen Iñigo Sevillano Realeko atleta ere, 110 metro hesietan. Eneritz Busto zilarra eskuratu zuen altuera jauzian 1,58 metroko jauziarekin eta LOKEko Maider Rekondo ere bigarren izan zen pisu jaurtiketan lau kiloko bola 10,31 metrora jaurtita.

Amaitzeko, joan den asteburuan Euskadiko atletismo klubean arteko txapelketa Iñigo Sevillano eta Itxoldi Rodriguezen Reakal irabazi zuen, Gaizka Ormazabalen Super Amara BAT taldeari aurrea hartuta.

Saiatuz 14. sailkatu da Senpereko triatloian, taldeakoa proban

Hasi da triatloia denboraldia. Gehientzat urteko lehen hitzordua izan zen Senperekoa. Laku ezagunaren inguruan lehiatu zuten taldeka, 750m igerian, 15km bizikletaz eta 6 kilometro korrika osatuz. Guztira 80 bat talde irten ziren, eta Saiatuzek bi talde aurkeztu zituen. Horietako bat 14. sailkatu zen, Imanol Artega, Ramon Altuna, Miguel Angel Fernandez eta Asier Gorostegi triatletek osatutakoa hain zuten. Bestea, Jabi Alonso, Kote, Andoni Salsamendi, Leo Juarez eta Enaitz Ibarburu herritarrena, 26. izan zen azkenena. Guztira zuzen lortuak emaitzeekin eta giro onean egin pasa polita egin zuten.

Maria Mendibe bigarren izan zen Bpxsport taldeakoa proba mistoan eta Izaskun Salazar Kairoscore taldeko herriarrak 54. egin zuen taldeakoa sprint distantzian, 1:27:24ko denborarekin.

Taldeakoa proba larunbatean izan bazen, bakarkakoa igandean egin zuten. Distantzia olimpikoan (1,5km igeri, 40km bizikletaz, 10km korrika) lehiatu zuten Saiatuzeko hiru herritarrek. Jabi Alonso 127. (2:26), Leo Juarezek 136. (2:28) eta Enaitz Ibarburuk 143. (2:29) egin zuten proba. Sprint distantzian, olimpiokoaren erdian, Aitor Uriarte Zarautz Triatlo Taldeko ordezkariak hartu zuen parte, 117. eginda 1:34:46 denborarekin.



Saiatuz TT

AUTOMOBILISMOA-

Rallysprint eta igoeretan trabeska ibiltzeko autoak

Muga, Racamonde, Saez eta Barkaitzegiren kotxeak prest daude

Lasterketa gose dira. Motorren burrunba, kronoen tik-tak soinua eta gasolina usaina dituzte maite. Lerro zuzenik ez, beti trabes ibiltzen dira Euskal Herriko portuetako bihurguneetan euren autoekin. Banan bana aztertu ditugu igoera eta rallysprintetarako herritarren asmoak.

JON ALTUNA EGITEGI

Hauexek dira aurtengo denboraldian partehartuko duten pilotu eta kopilotuak. Udaberriari hasi eta azarora bitartean irauten du lasterketa sasoiak eta Euskal Herri mailan lehiatzen dute gehienbat.

Pablo Muga/Aimar Altuna

Citroen Saxi 16V bat prestatu dute. Lehenengo urtea da gazte lasarteoiratarrena. "Goierriko lehenengo karrean pieza bat hautsi genuen, palierra. Arreglatu dugu eta hilaren 16an Nañarrin izango gara, eta oraingoan euzen dion. Hala ere, kotxearen sensazioak onak dira. Kilometro gutxi egin dizkiogu eta puntua hartzeko ibili beharra daukagu, ez dago sekreturik. Indar handirik ez du autoak, 140 bat zaldi ditu, baina arina eta bihurguneetan azkarra da", adierazi du Mugak.

Aimar Altuna aritzen da kopiloto lanetan: "Pena Goierriko Rallysprinteko bigarren maldan aberia izan genuela... Baina hasi besterik ez gara egin. Itsutu gabe, lasai, gure erritimo hartu eta ahal den txukunen aritzea da asmoa, eskua egin eta kilometroak pilotatuz. Aurrerago igoeretan bakarka ateratzeko asmoa dute, abuztua edo iraila aldera, Urrakin edo, BMW 325 batekin".

Giroko porra egiteko aukera ohiko tabernetan

Ostadar SKTx txirindularitzako porra antolatuta du aurten ere. Giroa bihar hasiko da eta porran parte hartzeko boletoko ohiko tabernetan daude, 7 euroko prezioan. Entregatzeko epea larunbatean, 21:00etan, amaitzen da. Txirindularien zerrendak eta sailkapenak Ostadarreko webgunean jarriko dira. Sariet dagokienez, etapako 60 euro, sailkapen orokorreko lehenazterditu 360 euro eta bigarrenazterditu 180 izango dira. Zazpi urdiazpioko zozketatuko dituzte parte-hartzaileen artean eta zortzigarena farolillok eskuratu du. Tabernetan sailkapeneko garaileak bi laguntzako afaria irabaziko du Txartel Txakoen.



Herritarren autoak. Goi ezka: Racamonde. Esk: Barkaitzegi. Behe ezka: Saez. Esk: Muga.

Benoat Barkaitzegi

Fran Bujanek gidatzen duen Ford Sierra Cosworth autoko kopilotua da Benoat Barkaitzegi herritarra: "Denboraldia Azeptatzen hasi genuen. Atera eta arazo mekanikoak izan genituen. Atzeko portuan kolpea hartu genuen... Bordilloa jo genuen, badakizu, ikusizkuz pixka bat emateagatik arriakatu, atzetik joan eta kolpea hartu genuen. Ia ez dauka ezer, baina zaindu egin behar", egin digu lehen kronika. "Kotxean ondo doa, pisu gutxi du, Potentea da, zaldi denterekin, bastanteko jostailua. Ikusleak gozatzea nahi dugu, baina denbora onak egiteaz abaztu gabe. Hurrengo hitzordua Nañarriko rally sonatuan daukagu, 16an".

Iñaki Racamonde

Citroen AX Sport baten jabe da herritarra. Igoeretan ibiltzen da bera eta herriko pilotu autotzetsuena da. Orain entzuri hobekuntzak egiten ari dela azaldu du.

"1997 urtean hasi nintzen kotxe karretetan, slalom, rally-ya eta igoerak egiten, 2002ra arte. Tarte horretan hiru kotxe eduki nituen (Ford Fiesta, Citroen AX GTI eta Citroen Saxi 16V) eta aurretzen joan naizen heinean kotxe hobek erosten joan naiz. Nik eduki dudako kotxerik onena Citroen Saxi izan da. Gero utzi egin nuen sei urtez eta berriro hasi

nintzen 2009an igoerak egiten Citroen AX Sport batekin, kotxe honekin irabazi ditut sari gehienak, 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2014ean lehenagolditu nazi Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketan nire klasean. Aurten berriro irabazten saiatuko naiz. Eskerrak familia osoari", adierazi du Racamonde herritarra.

Mikel Saez

Pilotu zaildua, bere Peugeot 205 rally autoaren bolantean bihurgune oso emandako da azken hamar urteotan: "Azken aldiari ez dute fundamendu askorekin lehiatu, oraindik ez dute oso argi zer egin aurtengoa, lurreko rallyren baten agian. Peugeot 205 autoa 2004tik daukat. Kopiloto hasi nintzen eta kotxe hau lagunekin moldatu nuen rallytarako. Betei ebulozionetan joan gara, pixkanaka hobetzen, geroz eta azkarragoa eginez. Ez dute inoiz beste auto bat erostea pentsatu oso gustura nagoelako. Arintasuna da nire puntu indartsuena, potentzia faltan, bihurguneetan ongi moldatzen da. Gozatzea da beti helburua".

Asier Goenaga

Jadanik erretiratu badago ere, herriko rally munduan aitzindari izan zen Goenaga Peugeot 206 GTI batekin, duela gutxi famili konpromisuegatik utzi behar izan zuen arte.

AGENDA-

ARETO-FUTBOLA

Igandea 10

Orioko Karela kiroldegia, 11:00etan
Alustiza Autrosabak Orio - Ostadar
Cecilia fruta denda, Kebab Lasarte
Gipuzkoako III. maila, igoera fisiko
fraduairekoa, partidu bakarra. Neurteta
irabazteko gero, igoera automatikoki lortuko
likete herriarrek.

— Agenda —

Maiatzaren 14ra arte, Manuel Lekuona kultur etxea



Umeen egoera Beninen

"Umeak arriskuan" argazki erakusketa ikusgai. Salesiarren Jovens y desarrollo Porto Novo Benim fundazioak Beninen kalean bizi diren umezurtz, haur eta gazteekin egiten du lan. Ikasketak edo etorkizunerako lanbidean trebatzeko aukera ematen die erakundeak. Bertan egiten duten lana erakusten du fundazioak argazkien bitartez.

Maiatzak 9, 10, 16 eta 17 12:00-14:00 eta 19:00-21:00

Udalak, Antxota elkarteak eta herriko sortzaile batzuek elkarlanean antolatuta dute arte erakusketa berezi hau. Guztira Lasarte-Oriako bederatzigazte obrez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Eskultura, pintura, musika, argazkilaritza eta zurgintza lanak dira, denera 50 bat.

Azoka

Siglo 20

Igandea, 11:00etatik 20:00etara

Bigarren eskuo gauzak, artisautza eta hemengo disenatzaileen lanak egongo dira salgai azoka honetan.

Andoain

Musika

BASTERO

Gaur, ostirala, 21:30etan

Kalakan eta Oreak TX taldeen kontzertua. Oreak TX taldearen sonortzeak Kalakan taldearen estiloarekin uztartuta. Zuzenekoan bi taldeek helburu bakarra dute; ikusleek musika beraien intensitate berberekin sentitzea. Sarrera 15 euro.

Usurbil

Sunterkia

SUTEGI

Larunbata, 22:00etan

Txaloren "Erdibana" antzezina. Bada adineko ama bat, enbolia eta gripearekin, baina hiltzeko oso gogo gutxi dituen. 45 urteko semea du, hondatzen ari den enpresaren jabea bera, eta bera zaintzen duen 38 urteko beste seme bat. Antzezlea Jose Ramon Sorioz eta Iker Galarza dira. Sarrera aurretik 8 euro eta egunean 10 euro.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala, 22:00etan

"Pride" filma Okendo Zinema taldearen zine forumean. 80. hamarkadan kokatzen da istorioa Erresuma Batuan. Homosexualitatea eta gatazka sozialak ditu oinarri. Urrezko Globoaren film onenaren sarira izendatua egon zen. Sarrera 5,50 euro.

Larunbata, 20:00etan

"Pride" filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Igandea, 17:00etan

"Cencienta" filma haurren zinema atalean. Walt Disney-ren animazioz-ko filma ezagunaren bertsio berria da. Sarrera 3,70 euro.

Igandea, 19:30etan

"Pride" filma helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Musika

BRIGITARREN KOMENTUA

Gaur, ostirala, 19:30etan

'Syrinx' ganbera-musika taldearen kontzertua izango da gaur Danok Kidek antolatutako X. Musika Topaketen baitan Brigitarren komentuko kaperan. Taldea Euskadiko Orkestrako lau irakasleek osatzen dute, Carlos Rosat flautak, Iciar Mugica biolinak, Mario Telentik spinetak eta Tomas Ruti fagotak. Emanaldi honetan Barroko berantiarreko doinuak eskainiko dituzte, Sammartin, Telemann, Vivaldi, Benda eta Quantz konpositoreen piezak hain zuzen. Ohi bezala, kontzerturako sarrera doan izango da Brigitarren komentuan.

MENDI KAFE ROCK

Larunbata, 20:00etan

Lee Juniorrek rockabilly kontzertua eskainiko du. Abeslari asturiarrak aurki diskoa argitaratuko du, honetan Mendi Kafe Rock tabernari idatzitako abesti bat egongo da eta abesti hauek eskainiko ditu emanaldian.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzan zehar

Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarion kanpainako selfie-ekin. "ElkarriOn adimen urritasuna duten pertsonak asko dute emateko" kanpainaren barruan, jendeak bidalitako argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

MERCERO ARETOA

Maiatzak 8 eta 15, 19:00-21:00.

— Herritarren txokoa —

Torredemarrara irteera

Lasarte-Oriako lagun talde batek Kataluniako Torredemarrara herrira joateko autobus antolatuta du.

Topaketa kultural honetan parte hartzeko jendea behar dute. Bereziki Oriako Sorgin Dantza dantzatuko duten herritarren bila ari dira.

Maiatzaren 29an izango da irteera eta 31an itzuliko dira. Autobusaren prezioa 40 eurokoa da. Hilaren 30eko zikiro janarena berriz, 20 euro.

Izena emateko zerrendak Artizar eta llagi tabernetan daude. Internetez, lot.topaketa@gmail.com helbidera idatzi dezakete interesatuek.

Gure Esku Dago

Aurreko larunbateko jaialdian apostu baten parte hartzeko aukera izan zuten herritarrek txistoraren luzera asmatzen zuenak txistora eta kamixeta zituen opari. "Xabier" izeneko herritar batek asmatu zuen eta txis-

torra ezean, kamixeta eskuratu dezakeela jakitera eman dute Gure Esku Dago lantaldeko kideek. Beraiekin harremanetan jar dadila eskatzen dute.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketak jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza galdetu edo informazio gehiago eskuratzeko.

Normalean hilabeteko iraupena duten erakusketak izaten dira Jalgin jartzan direnak.

Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke.

Ez da zertan Lasarte-Oriakoa izan behar espazio hau erabiltzeko.

— Hemeroteka —

Duela 1141 ale

1998ko maiatzean Gotzon Huegun eskultoreak Atsobakar auzoko Asteasuain kalean eskultura berria amaitu zuen, *Sagarrara*. Eskultoreak azaltzen zuenek, "Zer egingo nuen pentsatzen ari nintzela, sagar baten irudia bururatu zitzaidan. Gero, aitarerekin hitz egiten aspaldi alderdi hau sagarondoz beteta egon zela jakin nuen. Senagatik izan zen, baina nire ideiak indar handiagoa hartu zuen hori jakin ondotik". Udalak eskatuta Huegunek bi hilabeteko epean egin zuen eskultura. Artikuluan aipatzen denez, bi lan ziren orduan eskultore gazteak herrian zituenak eta biak Atsobakar auzoan zeuden Juanjo Mendiluzeren omeneko lana eta *Sagarrara*. Egun maiatzaren 17ra arte, Gotzon Huegunen eskultura-lan batzuk Antonio Mercero erakusketa aretoan ikusi ahaliko dira herriko beste artista batzuen lanekin batera.



ESKULTURA BERRIA ATSOBAKARREN:

Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Muñoa eta Labaka 'Gipuzkoa Bertsotan' fasean

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan aritzeko sailkapen fasean lehiatuko dute bi herritarrek

Gipuzkoako Bertsotan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2015erako sailkapen fasea da. Hilabeteko epean, 24 saio izango dira Gipuzkoa osoan. Denera 74 bertsolarik hartuko dute parte. Tartean dira Ane Labaka eta Unai Muñoa herritarrek eta baita Earra! Bertsotako eskolako Asier Aziproz eta Beñat Iguaran ere.

TXINTXARRI

Bertsolari bakoitzak bina saiotan egingo du bertso-tan, goiz eta arratsalde, eta saio bietako puntuen batuketek esango dute zein 30 bertsolarik lortuko duen irailaren 20an abiatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan aritzeko txartela.

Bertan, dagoeneko sailkatura dauden beste hamahiru bertsolari izango dituzte zain, duela lau urte finalaurrekoetara ailegatu zirenak hain zuzen.

Herritarren hitzorduak

Bertsotan egiten lehena Unai Muñoa izango da, asteberri honetan bertan. Astigarragoko kultur etxean dauka saioa, larunbat goizeko 11:30etan. Bigarren jardunaldia hilaren 17an izango du, Bergarako Zabaloteagin, arratsaldeko 17:30ean.

Ane Labakari dagokionez, beranduago hasiko du sailkapen fasea, maiatzaren 17an zehazki. Hernaniko Sandiusterreri artean egingo du bertso-tan lehenik, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Bigarren



Duela lau urte final-laurdenetara iritsi eta herritarren aurrean bertsoan egin ostean, Andoni Otamendik ez du aurten parte-hartuko.

saioa Zizurkilan dauka, maiatzaren 31n, goizeko 11:30ean hasita.

Gipuzkoako bertsolari txapelketan oro har, bederatzi gai-jartzaile, hemeretzi epaile

eta boluntario andana arituko da lanean. Sailkapen faseko saioak ikusteko txartelak egunean bertan salduko dira, aretoko lehiatiletan 4 eta 6 euroko prezioan. Final handia

berriz, Donostian jokatuiko da, abenduaren 20an.

Sare sozialetan Twitter bidez txapelketaren jarraipena egingo da @CBertsotzale kontuan eta #GBT15 traola erabiltuta.

Ane Labaka: "Helduago ikusten dut nire burua"



Bigarren txapelketa da Ane Labakarenentzat. Duela lau urte final-laurdenetara ailegatu zen eta lehen fase hau gainditu egin nahi du aurten, "baina badakizu, edozer gerta daiteke, zortea, eguna... Maila handia dago".

Zertan esango zenuke nabaritu duzula bilakaera lau urteotan?

Orain inoiz baino plaza gehiago egiten ari naiz. Bertsoaz gain, ikasi dut gauzak askoz errazago aurrera eramaten. Pertsonalki hobeto nago. Ez dit hainbesteko karga suposatuko aurten-goako. Duela lau urte ematen zuen mundua bukatuko zela. Aurten alde horretatik helduago ikusten dut nire burua, inoiz gehiagorekin. Niretik, nik nahi dudanak kantatzen ari naiz.

Nola prestatu duzu hitzordua?

Gogo askorekin. Errimak lantzen lehen aldiz aritu naiz serio, nire kabuz erri-

matagia osatzen. Koaderno bat daukat alfabetikoki ordenatuta, lotura daukaten hitzak elkarrekin jarri eta gero horiek errepasatzen ditut. Bertsotako eskolan elkarreaz aparte, nire adin bueltakoekin Donostian asteen bi aldiz ere elkartu naiz txapelketari begira, txapelketako arriketak egiteko.

Berrikuntzarik bai aurtengorako?

Asmoa daukat bakarka zazpi puntu kantatzeko Unai Agirireren doinu batean. Bere kantakera oso berea da, eta nik kantatuta asko aldatzen dela diote. Doinu berrieekin ez naiz atrebitzen.

Gazteak indartsu zatzotela Ane... Presiorik nabari al duzu?

Har berezia sortzen du txapelketak. Nik dagoeneko amestu dut kantatzen ari nintzela. Lehen den guztiak ekarzen du ezinegon puntu hori, aurrera pasa nahi izatea, barruan duzun guztia eman nahi izatea, ahal den onena erakustea... Denok nahi izaten dugu hori. Mugitzen du barruan zer edo zer.



Duela lau urte hiru puntutagik geratu zen Gipuzkoako Txapelketako finalaurrekoetik kampo Unai Muñoa. Halakorik berditzea zail ikusten du: "Ez diot behar besteko arretarik eskaini txapelketari, edozer gerta daiteke eta mentalizatuta noa".

Baietz, ezetz... Azkenean aurkeztu zara txapelketara. Ze asmorekin?

Zalantza handiak izan ditut zentzu bat eman nahi niolako nire parte-hartezari. Azken momentuan baietz esan dut, baina ez segurtasun handiarekin. Gauza askotan nabil, gauza asko dauzkat buruan eta banekien ez nuela nahikoa denbora edukiko txapelketari behar duen arreta eta ilusioa eskaintzeko. Dagoenarekin nago. Nire buruari galdetu nion aurkezteak zer aportatuko zidan... Presioa, denbora eta inbertsio handia delako. Baina azkenean urratsa ematea erabaki dut.

Zer eginda zeundeke gustura?

Txapelketari ez diot kasu handiegirik egin. Ahal den ondoan pasatzen saiatuko naiz, baina ez daukat batere prestatuta. Hori esanda, ematen du zama gainetik kentzeko esaten dudala, baina kasu honetan ez da hori. Ahal den onena ematera joango naiz, jakina. Deno den, konsziente naiz ez nagoela saso bi batean, ehuneko ehunetik urrun nago. Oso posible da lehen fasean kanpoan geratzea, egunaren arabera izango da, dohainak baditut eta pasatzea ere posible da. Ikusiko dugu. Azterketa batera ikasi gabe joaten den ikaslea bezala noa txapelketara.

Beraz, duela lau urteko konturik ez.

Logikaz, prestakuntzaz eta arretaz horra iristea zaila ikusten dut. Gazteak sasoiak datoz atzetik, teknikioki brillantek dira. Nire aukera esperientzia aldetik diskurtsuak ematen duen indarra da, edukialik, ikuspuntuak eta iritzirik landu nahi ditut. Heldutasuna baliatu nahi dut ahal den urturen iristeko.



LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

Zure
aurrea

Batxilerrerako
aurrematricula,
Maiatzaren 4tik 14ra

www.instilasarte.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1- LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 777